



ALBOAN

www.alboan.org

Cooperación
DescentralizadaLankidetza
Deszentralizata

Eraginkortasunari esanahi berria ematen. Gure proposamena



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ALBOAN Lankidetzak koadernoak

1. Lankidetzak deszentralizatua eztabaidan
2. Eraginkortasunari esanahi berria ematen. Gure proposamena
3. Mundua aldaketa sakonean. Lankidetzaren esparruko erakundeen testuinguruari eta erronkei buruzko hausnarketa
4. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: euskal lankidetzak deszentralizatua instituzionalizazioaren eta krisiaren artean
5. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: hezkuntza mobilizazioarekiko sentsibilizazioa garatzeko
6. Zenbait gakoren bila, lankidetzak deszentralizatua eta jarduera humanitarioa hobetze aldera
7. Espezializatu al daiteke lankidetzak deszentralizatua deszentralizaziorako laguntzan?
8. Tokiko eta eskualdeko garapen ekonomiko alternatiboko prozesuak. Lankidetzak deszentralizatuaren apustua
9. Generoaren eraginkortasuna; edo generoa, eraginkortasunaren ikuspegia oinarri hartuta
10. Bide-laguntza, eraginkortasunerako gako

Eraginkortasunari esanahi berria ematen. Gure proposamena



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo

Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308

Andia, 3 • 20004 Donostia

Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267

Estenaga Monsinorea, 1 • 01002 Gasteiz

Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: Alizia Aleman Arrastio

Itzulpena: Bakun

2013. urtea

Azala: Muxotepotolobat

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Imprimaketa: Lankopi, S.A.

Lege-gordailua: Bi-1268-2014

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburu apaitzen baldin bada.

Aurkibidea

1. Aurkezpena: ALBOAN eta eraginkortasunari buruzko eztabaida	5
2. Eraginkortasunaren ibilbidea: Monterreytik Busanera	9
3. Lankidetzaren deszentralizatua eta eraginkortasuna	17
3.1. Esparru arauemailearen eta plangintzaren arteko tartea	21
3.2. Koordinazioa eginkizun	21
4. Eraginkortasunari esanahi berria ematen	27
5. Bibliografia	37

1. Aurkezpena: ALBOAN eta eraginkortasunari buruzko eztabaida

Garapenerako lankidetzaren eraginkortasunari buruzko galderek ageriko egiten dute herritarren kezka, eta beraz, nazioarteko elkartasunaren alde lan egiten dugun gizarte zibileko erakundeona ere bai. Zertarako balio du garapenerako lankidetzak? Betetzen al ditu bere helburuak? Gobernuak, nazioarteko erakunde handiak, unibertsitateak eta pentsamendu-guneak ere saiatu dira funtsezko galdera horiei erantzuna ematen, eta horretan, abian jarri dute Garapenerako Laguntza Ofizialari (GLO) buruzko eztabaida¹. Nazioarteko lankidetzaren sistemaren partaide garen eragileok egiten ari garen ibilbide horri deritzo **ALBOAN**ek, hain zuzen, eraginkortasunari buruzko eztabaida².

Esanak esan, aipatu beharra dago lankidetzaren eraginkortasunari buruzko interresa **lausotu** egin dela, batetik, gizarte aberatsotan bizi dugun alderdi anitzeko krisialdia dela eta. Bestetik, erakunde publikoek nazioarteko garapenerako lankidetzaren politiketara zuzendutako zenbatekoen murrizketa larriek eragindako

¹ Modu askotara definitu izan da zer den edo zer izan behar lukeen garapenerako lankidetzak. Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) Garapenerako Laguntza Batzordeak (GLB) 1969an emandako Garapenerako Laguntza Ofizialaren (GLO) definizioa erabiltzen da, oraindik, fluxu ofizialak neurtzeko: “GLO deritza agentzia ofizialek, hots, estatuetakoa eta tokiko gobernuak, garapen bidean diren herrialdeetara (GLOren herrialde-hartzaileen zerrendatuta daude), alderdi anitzeko erakundeetara edo haien agentzia exekutiboetara bideratutako finantza-fluxuari, betiere, transakzioek baldintza hauek betetzen badituzte: a) garapen bidean diren herrialdeen gizarte – eta ekonomia-garapeneraren sustapena helburu nagusi dutela administratzen badira, b) izaera kontseionala badute eta c) laguntza guztizkoaren ehuneko 25 bada (ehuneko 10eko deskontu tasarekin kalkulatu eta hartzaileak itzuli beharrik ez duena)”.

² Proiektu honi dagokionean, bereizi egiten dira, batetik, *Eraginkortasunaren Agenda*, gaurdaino antolatutako Eraginkortasunaren Foro Globaletan adostutako dokumentu ofizialek osatutakoa, eta bestetik, *eraginkortasunari buruzko eztabaida*, izaera zabalagokoa eta tokiko erakundearen eta gizarte zibileko erakundearen jarrerak barne hartzen dituena.

egoera orokorra dela eta. Suntsiketa-egoera batean gauden arren³, uste dugu GKEok eta lankidetzaren deszentralizatuaren partaide garenok (autonomia-erkidegoetan, aldundietan eta tokiko erakundeetan dihardugunok) irmotasunez saiatu behar dugula gure lanaren funtsa ulertzen, hots, lankidetzaren funtsa barneratzen, ikasteko, gure praktikak eta politikak hobetzeko, eta eraginkortasunari buruzko eztabaida horretan benetako ekarpenak egiteko.

Atzera begira, diskurtso horren eraketari erreparatzen bazaio, ikuskera teknikoak nagusi izan direla ikus daiteke; arreta berezia jarri izan dela lankidetzaren eraginaren azterketan eta finantza-transferentzien errentagarritasunaren analisisian, lankidetzaren ikuskera *orohartzaile* eta *estatuzentriko* bat tarteko. Ikuskera horrek arrisku bat dakar berarekin, ordea, lankidetzari eta elkartasunari lotutako ekimenak aztertzeke erabiltzen bada, garapenaren esparruan funtsezkoa den ezaugarri bat ahaztaraz baitezake: ezin zaiola egotzi Garapenerako Laguntza Ofizialari munduko giza garapenarenari lotutako arazoak konpontzeko gaitasuna. Giza garapenean (edo miserian eta ahultasunean) itzalezko eragina dute tokiko, nazioko eta nazioarteko beste zenbait politikak edo egiturak. Pertsonen bizi-baldintzen hobekuntza aztertzean, eragin handiagoa izan dezakete merkataritza politikek, nazioarteko finantza-egituren gobernu ezak, zorpetze-mailak, lurraldearen eta baliabide naturalen kudeaketak, erakundeen osasun demokratikoak edo adierazpenaskatasunak berak, esaterako, garapenerako lankidetzaren politikek baino. Hortik, *Politiken Koherentzia* delakoaren beharra.

Horregatik, **ALBOAN**ek aintzat hartzen du lankidetzaren ez dela tresna txiki bat besterik, giza garapena bultzatzen duen mekanismoaren eta hura sustatzen duten politiken barruan. Errealitate hori kontuan hartuta taxutu behar da eraginkortasunari buruzko eztabaida, norberaren mugak eta munduaren konplexutasuna aintzat hartuta, eta beraz, gizartearen aldaketan eragiten dugunon rola apaltasunez eta errealismoz onartuta (gobernu-erakunde zentralizatu zein deszentralizatuena, gizarte zibilarena, nazioarteko erakundeena, enpresena...).

Hori horrela izanik ere, zinez uste dugu eztabaida horretan parte hartu behar dutela **ALBOAN**ek zein haren antzeko erakundeek. *Eraginkortasuna* hitz deserosoa izan da lankidetzaren sektoreko parte garenontzat, eta ez gutxitan gainera. Laguntzaren eraginkortasuna inposatutako kontzeptu gisa hartzen da, gobernuek, aldeaniztun erakunde handiek eta akademiak sorrarazitako eskakizun gisa.

³ Gómez Gilek eta beste zenbait egilek espainiar lankidetzaren *lehertu* dela diote. Haien iritziz, espainiar lankidetzak hartutako bideak "haien funtsezko helburuak erabat lausotzen ditu, eta beste era bateko interesen tresna huts bihurtzen".

Izan ere, ekonomiarekin, politika-zientziarekin, industriarekin eta enpresa-esparruarekin lotu izan da oraintsu arte eraginkortasuna. Ez hori bakarrik, politika publikoen eta irabazi asmodun ekimen pribatuen analisisen ardura nagusietako bat izan da, sarritan. Aitzitik, ez da asko erabili elkartasuna eta gizartea eraldatzeko borondatea oinarri dituzten ekimenak aztertzeko.

Ulertzen dugu eraginkortasunaren agenda horrek sektorean eragindako ondoreza; izan ere, aitzakia gisa erabili izan da, zenbaitetan, murrizketak justifikatzeko, ekimenak arbuizatzeko edo baztertzeko (Parisko Adierazpenean eta Akkrako Ekin-tza Agendan jasotako printzipioekin edo ustez eraginkorrago den *modako* lankidetzarekin bat ez badatoz) eta lankidetzaren zilegitasunaren gaineko zalantzei hauspoa emateko. Izan ere, aurrerago ikusiko dugunez, irizpide teknokratikoekin eta fokua gobernu zentraletan jarrita taxutu da Eraginkortasunaren Agenda. Nola-bait, berandu eta botere-banaketa asimetrikoz onartu dira Iparraldeko eta Hegoaldeko GKEen edo tokiko gobernuen planteamenduak. Horrez gain, espainiar lankidetzaren deszentralizatuaren esparruan, krisialdiak eta lankidetzaren politikari lotutako murrizketa orokortuek baldintzatutako egoera honetan, Eraginkortasunaren Agendan jasotako printzipioak eta adierazleak automatikoki eta hausnarke-tarik gabe aplikatu izanak ez-eraginkorren multzora baztertu ditu erakunde zein haiek proposatutako ekimen asko, sarritan, justifikazio argirik eman gabe.

Esanak esan, eraginkortasunaren diskurtso horren sorrerari lotuta, bada egin beharreko zenbait galdera, zilegi eta egoki ez ezik, herritarren kezken adierazle denik. Zertarako balio du lankidetzak? Laguntzen al du lankidetzak giza garapenean? Eta, amaitzeko, zer da eta nola neurtzen da giza garapena?⁴ Galdera horiei erantzuteko, uste dugu beharrezkoa dela lankidetzaren deszentralizatuak eztabaida ofizial eta diskurtso global horien jarraipena egitea, lankidetzaren politiken eraginkortasunari buruzko galderei erantzuteko erabili izan diren planteamendu sinplista eta murriztaileak alde batera utzita. Izan ere, mota horretako planteamenduen eraginez, oharkabean joan dira, gizarte-aldaketen balorazioa egitean, testuinguruari eta historiari lotutako alderdiak, bai eta erantsitakoak eta egiturazkoak ere. Hau da, gehiegitan saiatu izan gara inbertsio ororen euro bakoitzari eragin edo ondorio zehatz bat lotzen, nahi gabe, nolabaiteko *sasi-atribuzioak* eginez. Eta horrek gehiegi desitxuratu ditu lankidetzaren eragileen komunikazio-asmoetako

⁴ Severinok eta Rayk, 2009an eta 2010an argitara emandako bi artikulutan, Garapenerako Laguntza Ofizialera (GLO) zuzendutako funtsen helburuak argiago bereiztea proposatzen dute. GLOaren heriotza eta Ekin-tza *hiperkolektibo baten jaiotza* aldarrikatzen dituzte, eta finantzaketa globalaren premia duten hiru beharrezko bereizten: ondasun publiko globalak (besteak beste, klima), funtsezko zerbitzuen eskuragarritasuna edo giza segurtasuna (esaterako, osasuna eta hezkuntza) eta konbergentzia ekonomikoa (hala nola, azpiegitura handiak).

batzuk (maila orotako gobernu eta lankidetzaren agentzienak, nazioarteko erakundeak, GKEenak, fundazioenak...)⁵.

Uste dugu horrek guztiak berebiziko garrantzia duela espainiar lankidetzaren deszentralizatuan, batetik, politika publiko hori zalantzan jarri izan delako eraginkortasun eza dela eta (2000tik 2008ra artean bizi izan duen hazkunde handiko epean), eta bestetik, bereziki kaltetua izan delako murrizketen eta aurkako diskurtso politikoen eraginez.

Koaderno honen sorreran dagoen proiektuaren xedea da Eraginkortasunaren Agenda hori ulertzea eta hari esanahi berri bat ematea; bai eta ekarpenak egitea ere, gure errealitatea eta potentzialak oinarri hartuta, lankidetzaren deszentralizatuaren esparrutik (bereziki, euskal lankidetzarenetik) eta krisiak baldintzatutako testuinguru batetik. Lehen koaderno honetan, eraginkortasunari buruzko nazioarteko eztabaidaren ibilbide globala deskribatzen da, Espainiako eta Euskal Herriko lankidetzaren deszentralizatuaren eraginkortasuna zertan den sintetizatzen da, eta bukatzeko, esanahi berria ematen zaio Eraginkortasunaren Agendari, bost baliotan oinarritutako proposamen berri bat oinarri hartuta (laguntza, hurbiltasuna, aliantza, ikaskuntza eta enagarritasuna). Atariko koaderno honen atzetik, beste bederatzi etorriko dira, eraginkortasunari lotutako gai zehatzak jorratuko dituztenak, euskal lankidetzaren deszentralizatuari lotuta.

Proiektuak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntza jaso du, Garapenerako Hezkuntza proiektuen deialdian.

⁵ Atribuzioari eta hark eragindako atakei buruz gehiago jakiteko: Barder, O. (2009). *Beyond Planning: Markets and Networks for Better Aid*. CGD Working Paper 185.

2. Eraginkortasunaren ibilbidea: Monterreytik Busanera

Testua argitze aldera, esan **Eraginkortasunaren Agenda** deritzogula gobernuek eta nazioarteko erakundeek laguntzaren eraginkortasunari buruzko diskurtso ofizial bat eraiki nahian egindako ibilbideari. Agenda hori 2002az geroztik laguntzaren eraginkortasunari buruz egindako lau foroetan adostutako dokumentu ofizialek osatzen dute, bai eta ondoren gai jakinen harira erantsitako zenbait dokumentu ofizial espezializatuk ere (estatu ahulei edo Hegoaldeak Hegoaldeari laguntzeari buruzkoak).

Ibilbide horren abiapuntuan daude Nazio Batuen babesean sinatutako Milurtekoko Adierazpena (2000) eta, Milurtekoko Garapen Helburuei estu lotuta, Monterreyn garapenaren finantzaketa jorratzeko egindako topaketa (Mexiko, 2002). Aipatu berri dugun hiri horretan, adostasuna lortu zen finantzaketari lotutako hamaika alderditan (zorria, merkataritza, nazioarteko finantzak...) eta dei argi bat egin zen, emandako laguntzaren eraginkortasuna hobea zedin. Une horretatik aurrera, ELGaren Garapenerako Laguntza Batzordearen (GLB) lemapean, bidea egin da, laguntza eraginkor egiteko irizpideak eztabaidatzeko eta adosteko. Tartean, mugarri hauek izan dira: Erroma (2003), Paris (2005), Akkra (2008) eta Busan (2011).


Hiri horietan maila altuko foroak antolatu dira (MAF), eraginkortasunaren printzipioak eztabaidatzeko; eta urratsez urrats, eraginkortasuna hizpide hartuta, zenbait dokumentu adostu. 2003ko Erromako Foroan, lehenengo saiakera egin zen, herrialdeek harmonizazioa eztabaidaren ardatz egin zezaten. Horri esker, akordio bat erdietsi zen, emateko moduak bateratu eta laguntzaren errendimendua hobetzeko. Ikuspegi horrek, ordea, ia ez zuen kontuan hartzen laguntza

jasoko zuten herrialdeen ekarpena, ekarpen horrek laguntzen eraginkortasunean berebiziko garrantzia duen arren. 2005ean, Parisko Foroak onartu egin zuen premiazkoa dela gobernu hartzaileak solaskide izatea, laguntza hobetze aldera egin beharreko etengabeko elkarrizketan. Horrela, eztabaidaren norabidea aldatu zen; eta aurrerantzean, herrialde hartzaileekin lankidetzaz-esparru eraginkorrak garatzea izan da hizpide, herrialde emaileen eraginkortasuna soilik jorratu ordez. Foro horretan egindako adierazpenean eraginkortasunaren oinarritzko bost printzipio sinatu ziren: *apropiazioa, harmonizazioa, lerrokatzea, emaitzak ardatz egitea*, eta azkenik, *gardentasuna eta kontuak ematea*. Adierazpen horrez gain, balorazio-sistema bat garatu zen. Sistema horretan, 12 adierazle baliatzen dira, funtsezko zenbait alderditan egindako aurrerapenak ebaluatzeko; besteak beste, laguntzen aurreikusgarritasuna, herrialdearen administrazio-sistemen erabilera, tokiko langileei ezagutza teknikoen transmisioa. Lehen bi foro horietan, ikuskera teknokratikoa nagusitu zen, eta herrialde kideen gobernu zentralak izan ziren protagonista (emaileenak zein hartzaileenak).

2008an, **Akrako Ekintza Agendak** aurrerapauso bat eman eta Eraginkortasunaren Agendan zeresan handiagoa aitortu ziren tokiko parlamentu eta gobernuak; bai eta gizarte zibileko erakundeei ere, negoziazio-mahaian parte hartzerik ez zuten arren. Alabaina, Busango Foroan (Hego Korea, 2011) hasi zen nabarmentzen ohiko emaileen lidergoa lausotzen ari zela, nazioarteko laguntza-sisteman; eta aitzitik, indartzen ari zela gorabidean diren herrialdeen eta enpresen presentzia. Bilakaera hori garapenaren testuinguruko aldaketan ispilu ere bada, eta mundu gero eta konplexuago baten adierazle.

Hamar urteko ibilbidearen ondotik, Busanen, **Garapenerako Lankidetzaz Eraginkorrerako Munduko Aliantza** bat sortzea erabaki zuten Eraginkortasunaren Agendaren bultzatzaileek, lankidetzaz-eragile guztiak bilduko zituztena eta eraginkortasunaren ikuspegi zabalago bat izango zuena. Aurrerantzean, laguntzaren eraginkortasunaz ez ezik, garapenaz ere hitz egingo da.

Laguntzaren eraginkortasunaren ibilbidea



Iturria: ALBOAN. Geuk egina.

Hamar urte horietan, Eraginkortasunaren Agendaren diskurtsoan egindako aurrerapena ez bezala, ordea, neurrien aplikazioa oso mantsoa izan da. 2006an, 2008an eta 2011an⁶ eraginkortasun-adierazleak zertan diren aztertzeko egindako inkestek agerian utzi zuten zer zailtasun izan diren 2005eko Parisko Adierazpenean ezarri eta Akkrako Ekintza Agendan hobetutako eraginkortasun-printzipioen aplikazioan. Are gehiago, 78 herrialdetan egindako azken inkesta horrek erakusten duenez, helburuetako bat bakarrik erdietsi da (lankidetzaren teknika), eta aurrerapenak oso txikiak izan dira eraginkortasunean berebiziko garrantzia duten zenbaitetan (esaterako, funtsen aurreikusgarritasunean eta baldintzatutako edo lotutako laguntzan).

Hori guztia dela eta, eraginkortasuna ulertzeko moduan eta eragile berrien onarpenean eman beharreko urratsak dira, gure ustez, etorkizun handienekoak. Bereziki

⁶ ELGAK jarraipenerako hiru inkesta horiek egin ditu, 12 adierazleetan zehaztutako eraginkortasun printzipioak zer neurritan bete diren baloratzeko, 2005a abiapuntu hartuta. Adibide gisa, apropiazioa neurtzeko, herrialde kideek (aurrez herrialde hartzaile zeritzenez) *garapenerako estrategia eraginkorrak* dituzten edo ez aztertu da.

azpimarratzekoa da gizarte zibileko erakundeek egindako ahalegina, eraginkortasun kontzeptua eta garapenaren esanahia zabaltzeko. Asmo horrekin, gizarte zibileko erakundeek bat egin zuten, 2008an, *Better Aid* plataforman eta *Eraginkortasunaren Foro Irekian*. 2012ko abenduan, bi plataforma horiek bat egin eta foro bakar bat eratu zuten: **Garapenaren Eraginkortasunari buruzko Gizarte Zibileko Erakundeen Foroa**. Garapenaren eragile horiek eztabaida zabaldu eta garapenaren eraginkortasuna kontuan hartzeko premia adierazi zuten, hasiera-hasieratik, politiken koherentzia kontzeptuan bilduta aldarrikatu izan diren alderdi sistematikoa eta estrukturalak mahai gainean jarriz (zorria, atzerriko inbertsioak...). Gizarte zibileko erakundeek eraginkortasun kontzeptu argi eta adostu bat aurkeztu zuten maila altuko laugarren foroan (Busan, 2011), Istanbulen 2010eko irailean adostutako printzipio komunak eta Garapenaren Eraginkortasunerako Nazioarteko Esparrua oinarri dituena. Adostasun horren oinarriak dira gizarte zibileko hainbat erakunde egindako eztabaida eta haren ondorioak, zehatzago esanda, GKEek, emakumeen, nekazarien eta indigenen eskubideen alde lan egiten duten elkarteek, sindikatuek, elkarte profesionalek eta abarrek garapenerako lankidetzaren kontzepzioari eta praktikari buruz egindako eztabaida eta haren ondorioak.

Beste alde batetik, Eraginkortasunaren Agenda hura Garapenerako Lankidetzaren Eraginkorrerako Munduko Aliantza bihurtu izanaz gain, ezaugarri hauek izan zituen Busango foroak: i) laguntzaren eraginkortasunaren printzipioen aplikazioan egindako aurrerapen eskasa onartzea (batez ere, herrialde emaleen aldetik), ii) gorabidean diren herrialdeek garapenerako lankidetzan duten rola aitortzeko premia onartzea eta iii) gizarte zibileko erakundeei zeresan handiagoa aitortzea, eraginkortasunari dagokionean. Hori horrela izanik, ohiko eragileek zein gorabidean direnek bi akordio erdietsi zituzten Busanen. Batetik, adostu egin zuten ahaleginak **Garapenerako Lankidetzaren Eraginkorrerako Munduko Aliantza**⁷ sortzea, eta bestetik, lankidetzaren berregituratzea, oinarritzeko lau printzipio hauek kontuan hartuta:

⁷ Gehiago jakiteko, jo Aliantzaren webgune ofizialera: www.effective-development.org Gizarte Zibileko Erakundeek, eraginkortasunari lotuta, gaurdaino zer lan egin duten jakiteko, jo Foro Irekiaren webgunera: www.cso-effectiveness.org

1. **Garapenaren lehentasunen apropiazioa:** *garapen-prozesuen lidergoa garapen bidean diren herrialdeen esku uztea.*
2. **Lankidetzaren ardatza emaitzetan jartzea:** *helburu jakin batzuei lehentasuna ematea, pobrezia errotik suntsitzeko, bereizketa murrizteko eta hori egiteko behar diren baliabideak eta gaitasunak bermatzeko.*
3. **Aliantza bateratzaileak egitea:** *garapenaren eragile guztien arteko konfiantza sustatzea eta elkarrengandik ikastea.*
4. **Gardentasuna eta erantzukizun partekatua:** *lankidetzaren ekimenen gardentasuna areagotzea, erantzukizunen banaketa hobea izan dadin.*

Gutxiengo printzipio hauekiko hartutako konpromisoa, ordea, ez zen berdina izan herrialde guztietan; eta ondorioz, konpromiso berezietan oinarritutako irtenbide bat lortu zen: Parisko Adierazpena sinatu zutenek erabateko konpromisoa hartu zuten; gainerakoek, hala nola gorabidean direnek, borondatezko konpromisoa. Ondorioz, batasun handirik gabeko ikuskera bat izan zen emaitza.⁸

Horrez gain, Busanen, erabat argitu gabe geratu ziren funtsezko bi alderdi: bate-tik, Munduko Aliantza sortu berriaren gobernu-mekanismoak, eta bestetik, hartutako konpromisoen jarraipenerako esparrua. *Impasse* horretatik irtete aldera, Munduko Aliantza horrek batzorde iraunkor baten laguntza izango zuela adostu zen. Batzorde hori 18 kidek osatuko zuten, eta lehenengo aldiz, gizarte zibilaren ordezkari bat onartuko zen garapen bidean diren herrialdeetako ordezkarien, parlamentarien eta sektore pribatuko eragileen ondoan. Aipatu beharra dago, dena den, tokiko agintariek eta gobernu deszentralizatuek ez dutela ordezkari-rik batzorde horretan⁹.

Adierazleei dagokionean, 10 proposamen egin ziren, esparru hauetan egindako aurrerapenak zertan diren neurtzeko: i) herrialdeek egindako emaitza-esparruen erabilera, ii) gizarte zibilaren lan-esparruaren egokitasuna, iii) sektore pribatuaren

⁸ Gehiago jakiteko, ikus Intermon-Oxfamek 2012an argitaratutako *Busango Gakoak. Garapenerako Lankidetzaren Eraginkorrerako Munduko Aliantzaren hurrengo urratsak* ohar berriemailea.

⁹ Bartzelonan, 2013ko martxoaren 4an eta 5ean egindako Autonomia Erkidegoen eta Garapenerako Lankidetzaren sei-garren topaketako azken dokumentuan, Espainiako gobernuari eskatzen zaio "aktiboki babes dezala, egoki derizkion neurriak hartuz, tokiko eta eskualdeko gobernuak egindako eskaera, eskubide osoko ordezkari bat izan dezaten, Garapenerako Lankidetzaren Eraginkorrerako Munduko Aliantzaren Zuzendaritza Batzordean".

partaidetza, iv) gardentasuna, v) laguntzen aurreikusgarritasuna, vi) parlamentu-kontrola, vii) elkarrekiko konpromisoa, viii) genero berdintasuna eta emakumearen jabekuntza, eta ix) laguntzen baldintzapekotasuna.

Hala, 2012an, Munduko Aliantzak adierazleak finkatzen jarraitu du, lanerako mekanismoak zehaztu ditu, eta barne-eztabaida bat abiarazi du, 2015etik aurrerako garapen-esparru globalean zer ekarpen egin dezakeen aztertzeko. Gizarte zibileko erakundeek, beren aldetik, garapenaren eraginkortasunari buruzko hausnarketa egiten jarraitu dute, hausnarketa horren azken adierazpenean, hots, Nairobiko Adierazpenean, ikus daitekeenez. Dokumentu horretan, gizarte zibilak definitu egiten du zer den garapenaren eraginkortasuna eta berretsi egiten du Istanbulen adostu (Turkia, 2010eko iraila) eta Siem Riep-en berretsitako (Kanbodia, 2011ko ekaina) printzipioekiko eta eraginkortasunaren esparru globalarekiko atxikimendua.

Taula honetan, gizarte zibileko erakundeek adostutako definizioa eta Istanbuleko Adierazpenean jasotako zortzi printzipioak ikus daitezke.

1. Taula. Garapenaren eraginkortasuna zer den

Garapenaren eraginkortasuna zer den (Nairobiko Adierazpena, 2012ko abendua)

“Garapenaren eraginkortasunak aldaketa iraunkorrak sustatzen ditu, pobreziaren, bereizketaren eta bazterketaren zioak zein sintomak kontuan hartzen dituen esparru demokratiko batean, elkar osatzen duten askotariko tresna, politika eta eragileen bidez. Garapenaren eraginkortasuna, laguntzari lotuta, garapen-eragileen politiken eta praktiken multzo gisa ulertzen da, laguntzaren eta garapenerako lankidetzaren eragina areagotzen duena, pobreziak eta bazterketak jotako herrialdeen eskubideak betearazteko eta nazioartean adostutako garapen helburuak (NAGH)¹⁰ erdiesteko orduan. Garapenaren eraginkortasunaren helburuak betetzeko baldintzek berekin ekarri behar dute laguntzaren eraginkortasuna hobetzeko konpromiso neurgarria”.

¹⁰ Nairobiko Adierazpenean jasotzen denez, NAGH dira: “Nazio Batuen garapen agendako zenbait helburu espezifikoaren multzo bat -askotan, epe jakin bat dutenak-. Helburu horiek zenbait konpromiso laburbiltzen dituzte, 1990az geroztik, NBEren munduko goi-bileratan, garapenaren erronkei buruz hartutakoak. Konpromiso horietako batzuk Milurtekoko Adierazpenean jaso ziren, 2000ko NBEren Milurtekoko Goi Bileran parte hartu zuten gobernu guztien atxikimenduari. NAGHek barnean hartzen dituzte Milurtekoko Garapen Helburuak, helburu sorta handiago baten baitan. *Besteak beste, nazioen hazkunde ekonomikoa, bereizketarik gabeko gizarte-garapena, lan duina, garapen iraunkorra, giza eskubideak (emakumeen, haurren eta indigenen eskubideak barne), mundua demokratikoki gobernatzea, bidezko merkataritza, zorra kitzatzea eta migrazio-eskubideak”.*

Eraginkortasunaren printzipioak (Istanbuleko Adierazpena, 2010eko iraila)



1. Giza eskubideak eta gizarte-justizia errespetatzea eta sustatzea.



2. Genero-berdintasunarekin eta ekitatearekin bat egitea, eta aldi berean, emakumeen eta neskatoen eskubideak sustatzea.



3. Jabeakuntza, apropiazioa eta pertsona oroien partaidetza ardatz egitea.



4. Ingurumen-iraunkortasuna sustatzea.



5. Gardentasunez jokatzeko eta kontuak ematea.



6. Ekitatean eta elkartasunean oinarritutako aliantzak egitea.



7. Ezagutzak sortze eta partekatzea, eta elkarrengandik ikasteko konpromisoa hartzea.



8. Aldaketa positiboak eta iraunkorrak lortzeko konpromisoa hartzea.

Iturria: Nairobiko Adierazpena eta Istanbuleko Adierazpena.

Nairobiko Adierazpena mundu guztiko gizarte zibileko buruen eta ordezkarien ahaleginen fruitua da (feminismoaren, lanaren eta nekazaritzaren esparruetako, esparru konfesionaleko eta gizarte zibileko erakundetako buru eta ordezkariena), gaurdaino egindako hausnarketei eta lortutako adostasunari jarraipena emateko ahaleginena, Busanen sortutako Munduko Aliantzan parte hartzeko printzipio eta

helburu komunak adosteko, ekitatea eta berdintasuna nagusi diren mundu bat lortzeko garapen eraginkor batekiko konpromisoa sustatzeko.

Adierazpen horrek azpimarratu egiten du lankidetzaren testuinguru geo-politiko aldakor bati eta pobrezia-geografia berriari doitzeko premia. Erakundeek berretsi egiten dute beren egitekoa dela lankidetzaren eredu aldatuko duen agenda bat defendatu eta sustatzea, eskubideak ardatz dituen, orain arte erdietsitako lorpenak babestuz (Parisen eta Akkran lortutakoak, esaterako), nor bere eraginkortasuna hobetzeko etengabe lan eginez, eta espazio emankor bat eratuz, berezko eskubidea baitute garapenaren eragile independente izateko. Nazioarteko eztabaida horretan zenbait gai azaleratu dira, besteak beste, nabarmenen artean, *espazio emankor edo bizigarri* baten premia, gizarte zibileko erakunde nazionalen lana erraztuko eta ahotsa entzungarri egingo duena. Norabide horretan lan egiteko lantalde bat sortu izanak ageriko egin du erabaki horren atzean dagoen kezka, eta zer zailtasun dituzten gizarte zibileko erakunde askok beren ahotsa entzunarazteko, independentziaz lan egiteko eta espazio politiko propioa aldarrikatzeko.

Itzalak ugari dira oraindik, 2013aren erdi aldera, Eraginkortasunaren Agendak egindako ibilbidean; bai eta lankidetzaren eta garapenaren nazioarteko testuinguruan ere. Bereziki nabarmena eta larria da Parisen eta Akkran adostutako agendaren aplikazioaren geldotasuna, hots, agenda teknokratikoenarena. Argi hauteman daiteke, halaber, zer gaitasun eta ibilbide dituzten gizarte zibileko erakundeak. Izan ere, Eraginkortasunaren Foroan elkar hartuta, eztabaida zabaltzea lortu dute (laguntzaren eraginkortasunaz hitz egiteari utzi eta garapen eraginkorraz hitz egitea); bai eta Garapenerako Lankidetzaren Eraginkorrerako Munduko Aliantzaren negoziazio mahaiaren esertzea ere¹¹. Aparteko balioa du gizarte zibileko erakundeek garapenaren eraginkortasunari buruz egindako barne-hausnarketak, aukera eman baitu gizartearen aldatzeko egiten duten lanak berarekin dakartzan inplikazioak sakon aztertzeko. Bukatzeko, azpimarratzekoak dira Busanen hartutako zenbait konpromisoren anbiguitasuna eta gorabidean diren zenbait lankideen garapen eraginkorrerako nazioarteko agendari egindako harrera epela.


¹¹ 2011an, Busanen eraturako Munduko Aliantzaren bidez, Gizarte zibileko erakundeek ofizialki egin zuten bat Eraginkortasunaren Agendarekin. Batzorde iraunkorrean ordezkari bakarria izateak (sektore pribatuak adina), ordea, kezka eragiten du eta abiapuntuaren botere-banaketa desorekatuaren erakusgarri da.

3. Lankidetza deszentralizatua eta eraginkortasuna

Lankidetza deszentralizatuak oztopo handiak aurkitu ditu Espainian egiten ari zen ibilbidean, herrialdeak bizi duen krisialdi latza dela eta. Horren adierazgarri, 2008-2013 bosturtekoan sortutako egoera paradoxikoa; izan ere, lankidetzaren eraginkortasunari buruzko argitalpen mordoxka bat egin zen, eta aldi berean, lankidetzak inoiz bizi izan dituen murrizketa latzenak egin ziren.

Ondoren ageri den grafikoan ikus daitekeenez, espainiar lankidetza deszentralizatuak hazkunde nabarmena bizi izan zuen 2008ra arte. Une horretatik aurrera, eta bereziki, 2010etik aurrera gainbehera egin du, batez ere, autonomia-erkidegoetan (tokiko erakundeen egoera egonkorragoa izan da). Une horretan bertan, hain zuzen, eman ziren argitara lankidetza deszentralizatuaren eraginkortasunaren diagnostikoari buruzko lan garrantzitsuenetako batzuk.

1. Grafikoa. Lankidetzaren deszentralizatuaren hazkuntza, erorketa eta eraginkortasunari buruzko argitalpenak




Iturria: ALBOAN. Geuk egina, Nazioarteko Lankidetzaren Urteko Planaren jarraipenaren datuak oinarri hartuta. Eskerrak eman nahi dizkiogu 2015 Plataformako Ignacio Martínezi, datuak egiaztatzen laguntzeagatik.

* 2012ko datuak laguntzen aurrekontuei dagozkie, ez emandakoei edo erabilitakoei. Aurrekontuan sartutako eta erabilitako zenbatekoen arteko orekarik eza nabarmena da zenbait autonomia erkidegotan. Horrexegatik, beharbada, oker pentsa daiteke nolabaiteko susperraldia gertatu dela 2012an.

Aldiberekotasun hori estu lotuta dago espainiar lankidetzak izan duen izaera gorabeheratsuarekin, hazkuntzan (batez ere, 2004tik aurrera) zein gainbehera gogorrean (2010tik aurrera).

Hori horrela izanik, espainiar lankidetzaren deszentralizatuaren bilakaera aztertu eta lankidetzaren zentralarekin (hau da, Estatuko Administrazio Orokorrenarekin) edo munduko GLOarenarekin alderatzen badugu, argi ikusiko dugu espainiar lankidetzaren hazkuntza eta gainbehera handiagoak izan dituela munduko batez besteak baino (bilakaera egonkorragoa izan baita, oro har).

2. Grafikoa. Munduko GLO eta Espainiako GLOren bilakaera



Espainiar lankidetzaren hiru mailak elkarrekin alderatzen baditugu (zentralizata, autonomia-erkidegoetako eta tokiko erakundeetako), jabetuko gara tokiko lankidetzaren dela (hala nola aldundietako) gorabehera gutxien izan duena: ez zuen izan halako goraldirik urte oparoetan eta lankidetzaren hazkundera, ez eta hain gainbehera nabarmenik atzeraldian.

Espainiar lankidetzaren nazioarteko sistemara nahiko berandu bildu izanak eta izandako bilakaera gorabeheratsuak (batez ere estatu eta autonomia-erkidego mailan) azal dezakete, neurri handi batean, hazkunde handiko urteen ondoren, espainiar lankidetzaren eraginkortasunaren arloan duen interesa. Izan ere, funtsen hazkundeak berarekin ekarri zuen tresnen, planen eta ekimenen ugaritze ez oso txukuna, eta ondorioz, lankidetzaren politika publikoaren eraginkortasuna zertan den jakiteko beharra (eztabaidagai bihurtzen baita goraldi horren amaiera aldera). Horrez gain, espainiar lankidetzaren eraginkortasunari buruzko hausnarketari eta eztabaidari goitik behera eragin diete murrizketa bortitzek (batez ere, estatuak eta autonomia-erkidegoek egindakoek). Murrizketa horiek hainbat lankidetzaren programa erabat suntsitu edo leherrarazi dituzte, zenbait autonomia-erkidegotan¹².

¹² Salaketa horixe egin dute Espainiako eta autonomia-erkidegoetako GKEen koordinadorek, behin eta berriz, 2010eko lehen murrizketa handiak egin zirenetik.

Horren harira, esan beharra dago murrizketak behartzen ari direla eraginkortasunari buruzko eztabaida, eztabaida lasai eta sakonago bat ia ezinezkoa egiten, eta aldaketa mailakatu eta adostuak eragozten. Bestalde, asmoei dagokienean, aldaketa handi bat gertatzen ari da *garapenaren nazioarteko agendan*, eta tentsioak sortu dira lankidetzaren ikuskera tradizionalen¹³ eta, besteak beste, gizarteberrikuntza eta sektore pribatuarekin elkarlana proposatzen dituzten formula berrien artean.

Testuinguru horretan, espainiar lankidetzaren deszentralizatua kinka larrian dago, lortutako akordioak apurtzeko eta garapenaren nazioarteko agendatik at geratzeko arriskuan. Hipotesi hori bera jartzen dute mahai gainean Iborra-k, Martínez-ek eta Martínez-ek, *Gobernu autonomikoen lankidetzaren diagnostikoa* artikuluan¹⁴. Egile horiek diotenez, espainiar lankidetzaren deszentralizatuaren egoera orokorrak atzeraldia bizi du hiru esparrutan: doktrinatan, aurrekontuetan eta politikan. Doktrinatan esparruan, lankidetzaren paradigma errealista indarra hartzen ari da (lankidetzaren kanpoko ekintzarekin lotzen duena), paradigma kosmopolitaren aurrean (lankidetzaren eragile deszentralizatuaren munduko eta tokiko erantzukizunarekin lotzen duena). Aurrekontuetan eta politikan esparruan, berriz, hiru egoera hauteman daitezke: i) diskurtso kosmopolitadun lankidetzak bere horretan irautea, ii) diskurtso berri bat sortu eta ahultzea, eta iii) lankidetzaren desagertzea¹⁵.

Egileon hitzetan, adostasuna haustearren eta hiru egoera horiek sortu izanaren benetako arrazoiak estuki daude lotuta autonomien lankidetzaren politikaren berezko ahultasunari eta politika horiek gobernu autonomikoen eskuetan balio instrumentala galdu izanari. Izan ere, gobernuok kolpetik igaro dira hazkuntza ziklo bat kudeatzetik, krisialdiak, murrizketak eta gizartearen beharren hazkuntzak itota ibiltzera. Politika horien berezko ahultasunaren jatorria, beraz, hazkuntza hori ku-

¹³ Halaxe azaltzen du David Sogge-k, norvegiar lankidetzari lotuta, *Sharing for Prosperity* dokumentuan egindako azterketan. Dokumentu horretan jasotzen denez, Norvegiak ikuskera tradizionala eta ez merkantilista baten alde egiten du. Banaketa oinarri duen hazkuntza proposatzen da diru-sarrera txikiko herrialdeentzat, eta orain artekoa baino politikan koherentzia handiagoa herrialde emaitzaileentzat. Iturria: <http://www.thebrokeronline.eu/Blogs/Global-development-blog/The-Fundamental-Things-Apply/>

¹⁴ J. Iborra, P. Martínez eta I. Martínezek egindako erkidegoetako gobernuen lankidetzaren diagnostikoa. *Lankidetzaren deszentralizatua eztabaidagai. Lankidetzaren eraginkortasuna eta 2015etik aurrerakoak*. Bartzelona: CIDOB, Art-PNUD eta Milurtekoko Kanpaina, 2013.

¹⁵ Lankidetzari bere horretan eustearren adibide izan daiteke Euskadi, 2013ra arte aurrekontuari eusteaz gain lankidetzaren babesteko zenbait ekintza abiarazi baititu (Euskal Lankidetzaren Kontseiluaren Adierazpena). Madrilen, berriz, lankidetzaren ahuldu egin da. Bukatzeko, lankidetzaren suntsiketaren hiru adibide garbienak Kanariak, Gaztela-Mantxa eta Murztzia dira. Erkidego horietan ez dute lankidetzarako dotazioirik egin aurrekontuetan, eta horrez gain, lankidetzaren egiturak eta politikak desagitzen ari dira.

deatu zuten politiken oinarri ahuletan bilatu behar da. Politika horiek egiturazko akats hauek zituzten, besteak beste:

3.1. ESPARRU ARAUEMAILEAREN ETA PLANGINTZAREN ARTEKO TARTEA

Autonomia-erkidegoen plangintza-ahaleginek erronka handi bat izan dute: askotariko tokiko testuinguruen eta sektoreen *neurria* sortutako lankidetzaz *planifikatzea* edo lankidetzaz hori *jardun planifikatu batera doitzea*. Gauzak horrela, plangintza alorrean ahaleginak eta aurrerapenak egin diren arren, bi errealitateon arteko desoreka handieneko kasuetan, *planifikazio-fikzioa* egin dela esan izan da.

Eguneroko laneko beharrak lankidetzaz-politiken planifikaziora doitzeko zailtasun horiek sakon aztertu izan dira literatura espezializatuan. Azpimarratzekoak dira, esaterako, David Sogge-ren eta Owen Barder-en lanak. Lehenak *laguntza-katea* kontzeptua landu du; bigarrenak, berriz, plangintzaren mugak identifikatu ditu, ekonomia politikoaren ikuspegitik.

Erkidegoen lankidetzazari lotuta, Martínez eta Sanahuja izan dira fenomeno horri heldu diotenak (2009, 2010, 2012). *Proiektua guztiaren sorburu eta helburu* duen neurria egindako lankidetzaz sistema bati lotu dute; eta adierazi, autonomien lankidetzaz atrofiatu eta atomizatu ez ezik, eragileen zeresan politikoa hutsean utzi duela, eta GKEak eta administrazio publikoak elkar erabiltzera eramanean dituela. Rodríguez Carmona-k proposatutako terminoa erabiliz, bi egileok uste dute *proiektoratuak* ezerezean utzi duela, Espainian, autonomien lankidetzaz garapena sustatzeko duen potentziala.

3.2. KOORDINAZIOA EGINKIZUN

Hainbat egile aztertu dute bereziki espainiar lankidetzaz-politikakako eragileen koordinazioa, ikuspuntu batetik baino gehiagotik. Hombrado-k eta Hernández-ek, esaterako, biek ala biek, 2008an, aztergai izan zituzten autonomiatako gobernuen eta administrazio zentralaren arteko koordinazioaren zailtasunak. Beste zenbait alderdi ere aztertu izan dira: eragileen arteko koordinazioa, eguneroko lanean; GKEen arteko koordinazioa; gobernu autonomikoen sailen arteko koordinazioa, etab. Ikuspuntu praktikoago eta eraginkorrago batetik, ordea, GKEek

koordinadoreen bidez antolatu dute eginkizun hori; eta aldi berean, indarra egin dute harmonizazioaren alderdi eraginkorrako batzuetan aurrera egiteko (dirulaguntzei eta deialdiei lotutako prozeduratan, egutegietan eta eskakizunetan, esaterako).

Plangintzaren kasuan gertatu bezala, eragileen arteko koordinazioaren erronka hori ere sakon aztertu izan da literatura espezializatuan. Nabarmentzekoa da, esaterako, Easterly-ren lana. Espainian, gainera, beste ikuspuntu batetik azter daiteke eragileen arteko koordinazioaren arazoa, hain zuzen ere, estatuaren lurralde-antolaketatik (Alberdi, 2010). Alderdi hori, zer esanik ez, lankidetzaragileen azterketa eta ekintza-esparrutik at dago; eta zerikusi gehiago du borondate eta dinamika politikoeekin haiekin baino.

Bukatzeko, bigarren mailako faktore gisa, aipatu beharra dago Eraginkortasunaren Agenda. Halaber, onartu bada ere, ez dira behar bezala barneratu haren edukiak eta nazioarteko garapenerako lankidetzaren ikuspuntu berriak. Espainiako autonomien lankidetzaren beste gabezia bat da hori. Egiturazko gabezia horiei aurre egin eta autonomien lankidetzapolitikak eraldatzeko, aipatutako egileek hiru urrats proposatzen dituzte:

- 1. urratsa.** Eragile deszentralizatuen balio estrategikoa aintzat hartzea, doktrinei buruzko eztabaida gainditzeko, eragile deszentralizatuari agintaritzaren arabera lehentasunezko leku estrategikoa emanaz eta garapen-prozesuetan duten rola nabarmenduz.
- 2. urratsa.** Elkarrizketa politikoan, aliantza estrategikoetan, gizartearen parte-hartzean eta harmonizazioan oinarritutako eredu baterantz bidea egitea, proiektoratu gainditzeko eta garapenerako tokiko elkarteak eraikitzeak, eta hala, lankidetzaren autonomikoak tokiko gobernagarritasun-prozeduretan egiten duen ekarpenaren potentziala baliatzeko.
- 3. urratsa.** Lankidetzapolitiketatik garapenerako politika deszentralizatuetarantz bidea egitea, garapenerako Politiken Koherentzian aurrera egiteko, Garapenerako Hezkuntza suzartzeko eta Garapenerako Komunikazioaren erantzukizun politikoa bultzatzeko.

Iturria: ALBOAN. Geuk egina, Iborra, Martínez eta Martínezen oinarritua.

Askotariko hausnarketak eragin ditu lankidetzaren autonomikoaren eraginkortasunari buruzko ikuspegi horrek politika horretan parte hartzen duten eragileen artean. Batetik, uste da komeni dela gabezien eta potentzialen ikuspegiak orekatzeko; eta sakon aztertzea nola gauzatu den *proiektoratua*, eragile batzuen eta besteen jardunean. Bestetik, komeni dela lankidetzaren eragileen rol politikoa sakon aztertzea. Jakin, badakigun arren proiektua izan dela jardueraren unitate nagusia, zenbait autonomia-erkidegok aurrera eraman dituzte izaera estrategikoagoa duten zenbait tresna, hala nola programak. Are garrantzitsuago, proiektoratuari lotuta, esan beharra dago zenbait erakundek irismen estrategiko handiagoko eta iraupen luzeagoko harremanak egiteko baliatu dutela, *garapenerako tokiko erakundeen antzera*, plangintzek eta memoriek irudikatzen dutena baino.

Bestalde, GKEen zeresan politikoa txikia den arren eta herritarrengandik urrundu diren arren, uste dugu testuinguru konplexuago batean kokatu behar dela esandakoa, gizarte osoari eragiten dieten egiturazko fenomeno konplexuen baitan (alderdi politikoak, gizarte mugimenduak eta sindikatuak barne). Bukatzeko, esan beharra dago hiru urratsok, gure babes osoa duten arren, zenbait zalantza eragiten dizkigutela, praktikan izan dezaketen eraginkortasunari lotuta. Proiektoratua gaingaitu behar badugu, zer tresnatan oinarritu behar dira garapenerako tokiko elkarteak? Nola zehaztuko dira antolaketa-formulak, finantzaketa, epeak, egutegiak eta kontuak ematea? Nola egin hori guztia bideragarri, abiapuntua eta egindako ibilbidea kontuan hartuta?

Euskal lankidetzaren deszentralizatuari lotuta, hots, Eusko Jaurlaritzaren, aldundien eta tokiko erakundearen lankidetzari lotuta, 2008-2013 epealdiak zenbait ikerketa azpimarragarri eman ditu argitara (besteak beste, 2010ean eta 2011n, Unceta eta besteak euskal lankidetzari buruz egin eta Hegoak argitaratutako azterketak, Alberdik euskal lankidetzaren autonomikoaren esparru juridikoari buruz idatzitako liburua, eta 2013an, Natalia Rodríguez-ek egin eta Euskadiko GGEK-en koordinatutako argitaratutako ikerketa); bai eta euskal lankidetzaren eragilearen ekimenez, batez ere, GKEen ekimenez, sortutako zenbait idatzi edo adierazpen ere (Euskal Lankidetzaren Kontseilua, 2012).

Euskal lankidetzaren sistemaren, oro har, egiturazko zenbait akatsen sintomak hauteman daitezke, hain zuzen, Espainiako lankidetzaren autonomikoan zein tokiko lankidetzaren hauteman daitezkeen egiturazko gabezia berberenak. Alabaina, aintzat hartu beharra dago 25 urte baino gehiagoko ibilbidea egin dela, aurrerapausoak eman direla, ezagutza garrantzitsuak eskuratu direla eta hobekuntzak

egin direla politiken kalitatea eta eraginkortasuna hobetze aldera. Edonola ere, 2013an, akatsok gainditu ez ditugunez, erronka berberak ditugu; eta gainera, koadro honetan ikus daitekeenez, arrisku berrien aurrean gaude:

1. Koadroa. Euskal Lankidetzaren aurrerapenak, arriskuak eta erronkak

Aurrerapenak:

- Legeria eta - teoria-esparruak finkatu izana.
- Lankidetzaren Euskal Agentzia sendotu izana.
- Eskubideen, genero-berdintasunaren eta iraunkortasunaren ikuspegiaren zeharkakotasuna gero eta handiagoa.
- Irismen estrategikoa duten tresnak txertatu izana (programak eta ekintza-esparruak).
- Koordinazioa, batez ere, GKEen esparruan.
- Tokiko gobernuen eta gizarte zibilaren rola ulermen eta balioespen gero eta handiagoa, garapen globalari eta lokalari lotuta.
- Euskadiko lankidetzaren espezializazioari buruzko eztabaida abiatu izana.

Arriskuak:

- Murrizketak eta abian diren ekimenak bertan behera gelditzea.
- Lankidetzarako giza baliabideak eta baliabide teknikoak galtzea.
- Ikasitakoei etekinik ez ateratzea.
- Burokratizazioa eta funtsen kontrol hutsean oinarritutako ikuskera nagusitzea.
- Proiektua plangintzaren eta exekuzioaren tresna nagusi gisa berrestea.
- Lankidetzaren instrumentalizazioa, euskal gizartea eta enpresak nazioartera zabaltzeko.
- Herritarrengandik urruntzea, elkartasun ereduaren arteko gatazka.

Erronkak:

- Politiken Koherentzia praktikatzen hastea.
- Erakundearen arteko koordinazioa eta lankidetzaren gauzatzea.
- Prozeduren, erregistroen, datu-baseen eta informazio-sistemen harmonizazioa.
- Erakundeekin lankidetzaren zuzena, estrategikoa, egonkorra eta kalitatezkoa lortzea.
- Gardentasuna eta kontuak ematea, batez ere erakunde publikoetan.
- Euskal gizarteko eragile eta gaitasun gehiago biltzea.

Ondorio gisa, esan daiteke eraginkortasunarekin eta kalitatearekin nekez uztar daitekeen gorabeheri lotuta egon dela lankidetzaren deszentralizazioa, Espainian. Funtsen bat-bateko hazkundeak, hark berarekin ekarritako plangintza-tresnen eta - esparruen ugaritzeak eta funts horien ondorengo gainbeherak aurrez aurre taltza egiten dute eraginkortasunaren giltzarrietako batekin, hain zuzen, funtsen eta politiken aurreikusgarritasunarekin. Hori horrela izanik, zailtasun handiak daude eraginkortasunaren printzipioak aplikatzeko (apropiazioa, harmonizazioa eta lerrokatzea), eta nolabait, alde batera utzi da elkartasuna. Gorabehera horien arrazoi errotuenek zerikusia dute politika publikoen berezko ahultasunarekin eta egiturazko gabeziekin.

Euskadin ere ahultasun sintoma eta egiturazko gabezia berberak hauteman daitezke lankidetzaren deszentralizatuan, baina aurrerapenak ere egin dira, hobekuntzak eginda eta ezagutzak pilatuta. Egia den arren “ziklo bat amaitu dela, euskal lankidetzarentzat ez ezik, lankidetzaren deszentralizatu ororentzat”, egia da, halaber, norvegiar lankidetzari lotuta berriki esandakoa: “funtsezkoenak, azkenean, irauten du”. Hau da, zilegi da gizarte zibilean eta gobernu deszentralizatuaren oinarritutako lankidetzaren deszentralizatuaz mintzatzen jarraitzea, tokiko esparruen garapenean emaitzak lortzeko. Gainera, lankidetzaren eredu horrek ez du galdu gaitasunik hiritartasun globala sustatzeko eta politiken koherentzia areagotzeko tresna gisa.

4. Eraginkortasunari esanahi berria ematen

Eraginkortasunaren agendak eta diskurtsoak behartu egiten gaituzte, nolabait, egiten dugun lana hobeto ulertzen saiatzera, pluralizazio - eta aldaketa-prozesu sakon bat bizi duen nazioarteko lankidetzeta-sistema baten barruan. Gure lana eragin-esparru zabalago baten baitan dagoela ulertzeak eta lan hori hastapenetan geure egindako balioekin alderatzeak aukera ematen digute elkarrizketa bati ekiteko. Elkarrizketa horren helburuak dira, batetik, diskurtsoa aberastea, eta bestetik, lankidetzeta-erakunde deszentralizatu er-tainak ere kontuan hartuko gaituen garapenaren eraginkortasunaren ikuspegi orokor baterantz bidea egitea.

Gure ekarpenen oinarrian daude: urtetako esperientzia, hastapenetan geure egin-dako balioak, beste erakunde batzuekin sarean lan egiteko gaitasuna eta hainbat esparrutan garapenerako lankidetzari buruz egiten ari den eztabaidan izan dugun partaidetza (esparru akademikoan, gizarte zibilean, nazioarteko erakundeetan, GKEen koordinadoratan eta plataformatan...). Hori horrela izanik, esanahi berria ematen diogu eraginkortasunari, argitu eta gure lanean aplikatzeko, gure banako ekimenak, jardun instituzionala, eta lankidetzeta deszentralizatuaren politika pu-blikoak eratzean, beste erakunde publiko zein pribatu batzuekin batera osatzen dugun diskurtsoa elika ditzan.

Ezinbestekoa da eraginkortasunari eta kalitateari buruzko kezka horri zeharka heltzea, betiere, garapenerako lankidetzan aritzeak berarekin zer dakarren argi eta garbi barneratuta. Gure ustez, hauek dira eraginkortasunari buruzko diskur-tso horri esanahi berria emate horren adierazle nabarmenenak: Istanbulgo Adie-razpenean zehaztutako esparrua, bertan jasotako eraginkortasunari buruzko zor-tzi printzipioak eta Nazioarteko Esparrua.

Istanbulgo printzipioek eskubideen ikuskera argi bat jasotzen dute. Horregatik, uste dugu ikuskera horrek bideratu beharko lituzkeela, *zeharka*, lankidetzarako eta garapenerako esku-hartzeak, praktikak eta politikak. Jarraian, jasotzen ditugu printzipio bakoitzaren enuntziatua eta berarekin dakartzan inplikazioen azalpen labur bat, euskal lankidetzaren deszentralizatuaren egungo jardunetik eta ikuskeratik landuta.

Istanbulgo zortzi printzipioak

Zertan den euskal lankidetzaren



1. Giza eskubideak eta gizarte-justizia errespetatzea eta sustatzea

Enuntziatua. Gizarte zibileko erakundeak garapenaren eragile eraginkorrek dira, taldeen zein banakoen giza eskubideak sustatzeko estrategiak, jarduerak eta praktikak garatzen eta aplikatzen dituztenean; besteak beste, pertsona orok duintasunez, lanbide egokiz, gizarte-justiziaz eta berdintasunez hazteko duen eskubidea.

Inplikazioak. Esku-hartzeen eskubideen gaineko ikuskeraren bidez jasotzen da printzipio hori euskal lankidetzan, eta bereziki, gobernu kanpokoan. Euskal erakundeek eta GKEek bere egin dute ikuskera hori, baita zeharka aplikatu ere, ikuskera ez sistemiko eta bakartuak zein laguntza-proposamen jakin batzuk alde batera utziz (Euskal Agentziak ikuskera horretan oinarritutako metodologia-gida bat argitaratu zuen, hain zuzen, 2009an¹⁶). Eskubideen gaineko ikuskera horrek ezinbestekoa du testuinguruari egokitutako epe luzerako lana, eguneroko lankidetzaren proposamenetan zein Garapenerako Hezkuntzaren bidez euskal lurraldean abiarazten direnetan.



2. Genero-berdintasunarekin eta ekitatearekin bat egitea, eta aldi berean, emakumeen eta neskatuen eskubideak sustatzea

Enuntziatua. Gizarte zibileko erakundeak garapenaren eragile eraginkorrek dira, genero-berdintasuna bere egiten duen garapenerako lankidetzaren sustatzen dutenean, emakumeen beharrak eta esperientziak txertatuz, eta aldi berean, haien banako eta taldeko eskubideak erabat bermatzeko ahaleginen alde eginez, garapen-prozesuan erabateko jabetasuna lortu duen eragile gisa parte hartzeko aukera izan dezaten.

Inplikazioak. Euskal lankidetzan indartzen joan da genero-berdintasuna, zuzentasuna, eta emakumeen eta neskatuen eskubideen sustapena gauzatzearen aldeko lana. Ekarpen handiak egin dituzte esparru honetan Emakunde, Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Euskadiko GKEen Koordinadorako Genero Lantaldeak, gidari, ekimenen eta proposamenen bidez¹⁷. Eskubideen ikuskerarekin gertatu izan den bezalaxe, genero-berdintasuna ere zeharka txertatzen joan da plangintza – eta politika-dokumentuetan zein deialdi espezifikoetan. Zenbait erakunde publikok, esaterako, Gipuzkoako Aldundiak, interes agertu dute ikuskera hori garatzeko, eta horretan, atea ireki diote sektore horren espezializazioari. Euskadiko GKE batzuek ibilbide luzea egin dute zuzentasuna eta genero-berdintasuna errotzeko, batez ere, Erdialdeko Amerikako zenbait eskualdetan eta erakundearen sareko lanean. Alabaina, zehar-lerro honek gauzatzeko zailtasunak izan ditu (zailtasun teorikoak eta praktikoak), hala nola sektorialtasunari eta zeharkakotasunari lotutakoak; bai eta Euskadiko GKEen eta beren aliatuen zuzendaritza-egiturei buruzko hausnarketari lotutakoak ere.

¹⁷ Lankidetzaren Euskal Agentzian badira generoa lantzen duen unitate bat eta ekitatearen aldeko tresna espezifikoak. Emakunde bazuen jada 1998an ikuskera hori lankidetzan txertatzeko gida bat: De la Cruz, C. (1998). *Genero ikuskera garapenerako proiektuetan eta programetan txertatzeko gida metodologikoa*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde. Koordinadorak sektore horretan eztabaida bultzatu du, Genero Lantaldearen bidez. HEGOAK eta haren antzeko beste zenbait erakunde lan handia egin dute eztabaida hori sustatzeko eta aberasteko.



3. Jabeakuntza, apropiazioa eta pertsona oroaren partaidetza ardatz egitea

Enuntziatua. Gizarte zibileko erakundeak garapeneraren eragile eraginkorrak dira, jabeakuntzaren eta herritarren partaidetzaren alde egiten dutenean (herritarrei beraiei eragiten dieten ekimenen eta politiken apropiazio demokratikoa areagotzeko lanetan, batez ere txirotuei eta baztertutakoei eragiten dietenetan).

Inplikazioak. Euskal lankidetzaren partaidetzaren ikuskeraren bitartez garatzen da printzipio hau, batez ere, eta halaxe jaso zen 2008-2009 Plan Zuzendarian. Sarritan, aldi berean lantzen dira proiektuen bidez laguntza jaso dutenen jabeakuntza, gaitasunak eta partaidetza. Arlo honetan, gutxiago aipatu izan da apropiazio demokratikoa, gutxi zabalduetako esapidea baita Euskadiko lankidetzaren eragilearen artean. Euskal lankidetzaren erroka nagusietako bat da tokiko agintariak eta gobernuak konbentzitzea eta tokiko GKEek kudeatutako proiektuetan eta programetan inplikatzeko (batez ere, ahultasun edo atzeraldi demokratikoa ezaugarri duten testuinguruetan).



4. Ingurumenaren iraunkortasuna sustatzea

Enuntziatua. Gizarte zibileko erakundeak garapeneraren eragile eraginkorrak dira, ingurumenaren iraunkortasuna sustatzen duten lehentasunak eta ikuspegiak gauzatzen dituztenean oraingo eta etorkizuneko belaunaldientzat, arreta berezia jarritz baldintza sozioekonomikoetan, kulturaletan eta indigenen eskubideetan, zuzentasun ekologikoa eta justizia helburu.

Inplikazioak. Eskubideei eta generoari lotutako alderdiak bezala, ingurumenaren iraunkortasuna ere zeharka joan da txertatzen euskal lankidetzaren, deialdiarako eta plangintzetarako egindako dokumentuen bidez, eta ez horrenbeste sektorializazioaren bidez. Euskadiko zenbait GKE eta ikerketazentro eztabaida bat sustatzen ari dira zehar-lerro horrek Garapenerako Hezkuntza eta lankidetzaren proiektuetan eta programetan duen eraginari buruz. Ingurumenaren iraunkortasuna¹⁸ da, agian, atzerapen handienez gauzatzen ari den zehar-lerroa.

¹⁷ Marcellési, F. (2012). *Garapenerako lankidetzaren eraldaketa ekologikorako gida praktikoa*. Bilbo: Bakeaz.



5. Gardentasunez jokatzera eta kontuak ematea

Enuntziatua. Gizarte zibileko erakundeek, garapenerako eragile eraginkor izatekotan, konpromiso instituzional iraunkorra erakutsi behar dute, gardentasunez jokatu, eragile batzuei eta besteei kontuak emanez eta barne-funtzionamenduan zintzo eta osotasunez jokatu.

Inplikazioak. 1998az geroztik Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak bildutako GGKE-ek lanean dihardute gardentasun handiagoz eta kontuak emanez jarduteko. Horretarako, Jokabide Kode bat onartu zuten, eta bertan, besteak beste, GGKE-ek beraien artean zein erakunde aliatuekin eta emaile pribatuekin dituzten harremanei eta gardentasun ekonomikoari buruzko atal bat jasotzen da. Erakunde publikoak dagokienean, aurrerapen handiak egin diren arren (batez ere, udaletan), lan asko egin behar da informazio eguneratua, ulergarria eta estandarizatu argitaratzeko, bai eta kontuak elkarri emateko ere (batez ere administrazio publikoen aldetik).



6. Ekitatean eta elkartasunean oinarritutako aliantzak egitea

Enuntziatua. Gizarte zibileko erakundeak garapenerako eragile eraginkorrak dira, konpromisoa hartzen dutenean, askatasunez eta berdintasunez, harreman gardenak izateko gizarte zibilarekin eta garapenerako lankidetzaren beste eragileekin, hauek oinarri dituztela: garapen-helburu eta – balio komunak, elkarrekiko errespetua, konfiantza, autonomia, epe luzerako laguntza, elkartasuna eta hiritartasuna globala.

Inplikazioak. Printzipio hau modu inplizituan gauzatu da euskal lankidetzaren plangintza-dokumentu askotan; bai eta araudietan ere (esaterako, garapenerako lankidetzari buruzko legean). Alabaina, ez da sistematikoki aplikatu lankidetzaren deialdietan eta – tresnetan. Euskal lankidetzak bere jardunean egindako aliantzak estu lotuta daude funtsen aurreikusgarritasunarekin; bai eta lankidetzaren eragileekin sarean egindako lanarekin eta filosofiarekin ere (batez ere, GKEekin). Printzipio hau gauzatzeko oztopo dira *laguntza-katea* (hau da, euskal lankidetzaren tresna garrantzitsua) eta urte bateko edo biko proiektuak orokortu izana. Alabaina, onartu, onartu da beharrezkoa dela harreman estrategikoen eta sareko lanaren aldeko apustua egitea.



7. Ezagutzak sortze eta partekatzea, eta elkarrengandik ikasteko konpromisoa hartzea

Enuntziatua. Gizarte zibileko erakundeak garapenaren eragile eraginkorrak dira, beren eta beste zenbait GKEren eta garapen-eragileren esperientziatik ikasteko modua hobetzen dutenean, emaitzen eta praktiken ebidentziak integratuz, tokiko komunitateen eta indigenen ezagutzak kontuan hartuz, eta berrikuntza eta eraiki nahi den etorkizunaren ikuspegia indartuz.

Inplikazioak. Aliantzen printzipioa bezala, elkarrengandik ikasteko apustua modu inplizituan gauzatzen da lankidetzaren politikari buruzko zenbait dokumentutan, baina ez da sistematikoki aplikatzen, ez deialdietan eta lankidetzaren tresnetan, ez proiektuetan eta praktikan. Gauzatze horrek lotura estuagoa izan du lankidetzaren bakoitzaren filosofiarekin edo praktika-rekin beste ezerekin baino (batez ere, GKEenekin). Azpimarratu beharra dago zenbait euskal erakundeek sistematizazio-metodologiaren aldeko apustua egin duela, nazioarteko lankidetzaren esparruan.¹⁹



8. Aldaketa positiboak eta iraunkorrak lortzeko konpromisoa hartzea

Enuntziatua. Gizarte zibileko erakundeak garapenaren eragile eraginkorrak dira, ekintzen bidez lankidetzan dihardutenean, emaitza eta inpaktu iraunkorrak lortu eta pertsonen bizibaldintzak modu iraunkorrean hobetzeko (bereziki, pobreen eta baztertutakoentzat), egungo eta etorkizuneko belaunaldientzako ondare iraunkor bat bermatzeko.

Inplikazioak. Printzipio hau *iraunkortasuna* izenez aipatzen da plangintza-dokumentu eta araudi askotan; bai eta deialdietan, lankidetzaren tresnetan eta ekimenetan ere. Printzipio honen aplikazioa estu lotuta dago euskal lankidetzaren eragileek, ekimenen eta harremanen iraunkortasuna helburu, egindako sareko lanarekin eta filosofia-rekin. Estu lotuta dago, halaber, funtsen eta politiken aurreikusgarritasunarekin.

¹⁸ Askoren artean. (2006). *Sistematizazioaren abentura. Nola begiratu gure praktikari eta hartatik ikasi, gure praktiketatik*. Bilbo: ALBOAN, Giza Eskubideen Pedro Arrupe Institutua, Hegoa.

ALBOANen urteak daramatzagu gure ekintzen eta antolaketaren eraginkortasunari buruz gogoeta egiten¹⁹, bai eta euskal lankidetzaren deszentralizatuaren politika publikoari buruz hausnarketa egiten ere. Geure esperientziaren argitan egin dugu gogoeta hori, baina kontuan hartu ditugu, halaber, eraginkortasunaren agenda ofizialetik eta gizarte zibileko erakundearen hausnarketa-prozesutik ondorioztatu-tako ezagutzak eta gomendioak. Hausnarketa horren ondorio da gure erabateko atxikimendua Istanbulgo printzipioekiko eta gizarte zibileko erakundeek adostu-tako garapeneraren eraginkortasunaren definizioarekiko.

Hori horrela izanik ere, agenda horri esanahi berri bat eman diogu, barne-prozesu baten ondorioz, euskal lankidetzaren sistemarekin estu lotutako gure jarduna eta esperientzia hobeto islatzen dituen hizkuntza batekin. Are gehiago, zinez uste dugu lankidetzaren deszentralizatuaren eraginkortasunak zerikusi handiagoa duela erakunde horiek Istanbulgo Adierazpenean adierazitakoekin (eskubideen ikuskera, elkarrengandik ikastea, aliantzak eta aldaketen iraunkortasuna) beste ezerekin baino. Beste modu batera esanda, zerikusi handiagoa du lankidetzaren egiteko *moduarekin*, *espazioarekin* (kontzentrazio geografikoarekin), *neurriarekin* (lankidetzaren zenbatekoarekin) edo *jomugarekin* (helburu dituzten sektoreekin) baino.

Eraginkortasunari esanahi berri bat emate horretan, balio hauek egin ditugu eraginkortasun-irizpide:



1. Bide-laguntzaren balioa²¹

Ahalegina dela aitortu behar den arren (beraz, ez perfektua eta ez burutua), garapenerako lankidetzaren sustatzeko ahaleginak bide-laguntza du oinarri, gizarte zibileko erakundearen eta lankidetzaren deszentralizatuaren eragile askoren lan egiteko moduaren eta estiloaren funtsa baita. Bide-laguntzak aukera pa-

¹⁹ Guzmán, M.T. (2011). *GKEok proposatzen dugun lankidetzaren deszentralizatuaren*. GKEen koordinakunde autonomikoen *GKEek hitza hartzen dute* foroan aurkeztutako ponentzia. González, M. (2008). *Eraginkortasunaren agentzia, probintziako GKE baten ikuspuntutik*. Bilbo: ALBOAN.

²⁰ Laguntzaren balioa sakonago aztertuko da bilduma honen hurrengo koordenoenetan.

regabea ematen du epe luzerako loturen aldeko apustua egiteko lurraldeen, giza taldeen eta tokiko agintarien artean, joan-etorriko lankidetzaren ahalbidetzen baitu, elkarrekin gobernatzekoa eta guztiontzako onurak ekarriko dituen. Gure iritziz, bide-laguntzak izan beharko luke, hain zuzen, erkidegoetako eta lekuko gobernuak bultzatutako lankidetzaren ardatz, Istanbulgo 6. eta 8. printzipioetan esandakoaren haritik, elkartasun-sarea indartzeko. Euskal lankidetzaren eraginkortasunean aurrera egitea, funtsean, bide-laguntzaren balioa bere egitea da, lan egiteko modu eta eraginkortasun-irizpide baita, gizarte zibileko erakundeentzat zein gobernu-erakundeentzat.



2. Ernagarritasunaren balioa²²

Lankidetzaren deszentralizatuak aukera gehiago du neurri handiagoko beste batzuk baino (estatu-agentzia handiak edo nazioarteko erakundeak baino) ideia ernagarri edo berritzaileen aldeko apustua egiteko, eskualdeko eta tokiko errealitateetan bultzatzen eta gauzatzen diren proiektu pilotuen bidez. Neurri txikiagokoa eta malguagoa izanik, tokiko lankidetzak aukera gehiago du testuinguru jakin bakoitzerako ekimen berritzaileak hautemateko, bilatzeko eta gauzatzeko. Proiektuok ulergarriak eta ikusteko modukoak izan behar dute. Aukera eman behar dute irizpideak, ikaskuntzak eta metodologiak eratzeko, beste erakunde batzuek beste leku batzuetan errepikatzen edo zabaltzen, politika publiko gisa. Egia den arren txikia ez dela beti ernagarri, zinez uste dugu metodologiak probatzeko apustu horren sorburu eta indar-iturri direla hurbiltasuna, konfiantza eta tokiko eta eskualdeko giza taldeekin elkarriketa (esaterako, partaidetzaren edo gizarte-mobilizazioaren esparruan).

²¹ Beste ikuspegi batetik, ikus González, B. (1998). *Ernagarritasuna da utopia: aski da Jainkoa, baina Jainkoa bakarrik ez da aski*. Santander: Sal Terrae.



3. Hurbiltasunaren balioa

Bere eguneroko jardunean, lankidetza deszentralizatuak gogor saiatu da lagun-dutakoengandik hurbil egoten, eskakizunetatik sortutako lankidetza-sistemek zenbait lurraldetara eta giza taldetara iristeko dituzten zailtasunak zailtasun²². Edonola ere, lankidetza deszentralizatuak lehentasunez bultzatutako ekime-nak eta harremanak Hegoaldeko herrien problematikatik eta testuingurutik hurbil sortu dira, eta horrek nazioarteko erantzun solidario lokalizatua eragin du. Hurbiltasun hori asko balioesten dute herritarrek, sentitu egiten baitute lankidetza-programen baliabideak gehien behar dituztenengana iristen direla. Hurbiltasun horrek berezkoa du tokiko testuinguruak eta giza taldeak elkarre-kin lotzeko aukera. Istanbulgo Adierazpeneko 1. eta 6. printzipioekin lot daite-ke hurbiltasunaren balioa.



4. Aliantzaren balioa

Lankidetza deszentralizatuak aliantzaren balioa har dezake oinarriztat, era-ginkortasunaren eta kalitatearen aldeko apustua egiteko. Aliantzak egiteak eta sendotzeak berarekin dakar harremanak sendotzea, Hegoaldeko erakunde aliatuekin, gizarte-mugimenduekin, beste GKE batzuekin eta Euskadiko zein lankidetza-proiektuen eta – programen helburu diren herrialdeetako eskualdeko eta tokiko administrazioekin. Aliantzak egitea, ordea, erronka gogorra da, batez ere, gizarte zibileko erakundeen eta gobernuen arteko harremanei dagokienean. **ALBOAN**ek eta beste zenbait GKEk *aliantzak* egitea helburu du-gun arren, zenbait gobernuk nahiago dute *kontratu*en logika aplikatu. Izan ere, gobernuak politika-logika konplexuak izaten dituzte, sarritan, lehentasun eta agenda berezidunak. Errealitate horrek berarekin dakartzan zailtasunak aintz-tzat hartu arren, beharrezkoa da gobernuarekin ere aliantzak egitea, gutxienez, eztabaida – eta hausnarketa-esparru bera izateko. Administrazio publikoen eta gizarte zibileko erakundeen arteko harreman horiek aukera ematen dute beste ikuspuntu batzuk eta aniztasuna txertatzeko; bai eta eragile eta

²² Lankidetza deszentralizatuak Perun duen lekuaren, kausen eta inplikazioen atzerako azalpen bat ikusteko: Martínez, I. (2009). *GKEen lankidetza deszentralizatuak Perun*. Madril: ICEI.

subjektu ahulenak indartzeko ere, artikulazio politikoa eta eremu publikoaren eraikuntzan partaidetza bultzatuz. Kontsulta edo informazio eta legitimazio hutsak gaindituta, aliantza horiek ahalbidetu egiten dute gizarte zibilak politika zibilen definizioan parte hartzea eta, azken finean, demokraziaren gauzatzeara aurrera egitea.



5. Ikaskuntzaren balioa

Ikaskuntza joan-etorriko bide bat da. Bide horretan, lankidetzaz-eragileok ikasi egiten dugu errealitatearen eraldaketaren konplexutasunean gertatzen diren gizarte-aldaketa prozesuetatik. GKEok zein gizarte zibileko gainerako erakundeek, gizarte-mugimenduek eta tokiko eta eskualdeko gobernuak, guztiok har dezakegu lankidetzaz ikaskuntza-bidetzat, planetako hainbat testuingurutan eta errealitatean gertatzen diren gizarte-aldaketak ulertzeko. Lankidetzaz deszentralizatuak egin dezake zubi-lan hori, gizartearen eta lurraldeen artean. Askotariko egoera anitzen arteko bat-egite hori oinarritzat har daiteke, halaber, errealitatea aztertzeko eta interpretatzeko; bai eta lankidetzaz eraginkorraren erronkei aurre egiteko ere, baztertuta daudenen bizi-baldintzak eta bakea eta, munduan, iraunkortasuna hobetzen lagun dezan.

Laburki, eraginkortasunaren eztabaidari esanahi berria emate horretan, **ALBOAN**etik bost balio horiek proposatzen ditugu, lankidetzaz-praktikak eta – politikak bideratzeko. Istanbulgo Adierazpenean jasotako zortzi printzipioekiko atxikimendua adierazten dugu; eta aldi berean, esanahi berri bat proposatzen, gure ibilbidearekin hobeto uztartzen diren ikuspuntu eta hizkuntza batekin, garapenaren eraginkortasuna hobeto ulertzeko aukera emango duela uste baitugu.

Bibliografía

- Askoren Artean. (2006). *La aventura de la Sistematización. Cómo mirar y aprender de nuestras prácticas desde nuestras prácticas*. Bilbo: **ALBOAN**, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Hegoa.
- Alberdi, J. (2010). *El futuro de la cooperación autonómica al desarrollo. Estudio del marco jurídico-político de la cooperación pública vasca*. Oñati: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (IVAP).
- ART PNUD, CIDOB, Milurteko Kanpainia. (2013). *La cooperación descentralizada a debate. La eficacia de la ayuda y el post-2015*. Bartzelona: CIDOB y ART PNUD.
- Barder, O. (2009). *Beyond Planning: Markets and Networks for Better Aid*. CGD Working Paper 185.
- Chacón, A., Oskoz, J. & Garcia, B. (2009). *Guía metodológica para la incorporación de los derechos humanos en la cooperación al desarrollo*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- CIDSE. (2013). *How to Bring about Change. Exploring and improving modalities and tools for impact assessment, nurturing our common understanding of social transformation and change*. Brusela: CIDSE.
- EGKEK – Erkidegoetako taldea. (2012). *La cooperación autonómica y local desde las ONGD*. Madril: EGKEK.
- EGKEK – Erkidegoetako taldea. (azaroak 24, 2012). *Contra la pobreza en el Sur y en el Norte*. Declaración final del X encuentro de coordinadoras autonómicas en Bilbo. Madril: EGKEK.

- EGKEK – Erkidegoetako taldea. (apirilak 5, 2013). *Posicionamiento de la coordinadora de ONGD sobre el proyecto de reforma de la Administración Local*. Madrid: EGKEK.
- ELGA-GLB. (2005). *Declaración de París sobre la eficacia de la ayuda al desarrollo*. Paris: ELGA.
- ELGA-GLB. (2008). *Programa de Acción de Accra*. Paris: ELGA.
- ELGA-GLB. (2011). *Aid Effectiveness 2005-2010: Progress in Implementing the Paris Declaration*. Paris: ELGA.
- Gómez, C. (2013). “La voladura de la cooperación española. Indicadores para confirmar el deliberado colapso de la política de AOD”. *Revista Esbozos Cooperación* 35.
- González, B. (1998). *La utopía está en lo germinal: sólo Dios basta pero no basta un Dios solo*. Santander: Sal Terrae.
- González, M. (2008). *La agencia de la eficacia vista por una ONGD de provincias*. Bilbo: **ALBOAN**.
- Guzmán, M.T. (2011). *La cooperación descentralizada que proponemos las ONGD*. Ponencia presentada en el Foro de Coordinadoras Autonómicas de ONGD celebrado el Valencia en abril de 2011.
- Hernández, C. (2005). *Identidades más allá de las fronteras. Las políticas de cooperación descentralizada en el País Vasco y la Región Toscana, como instrumentos de construcción del espacio regional hacia dentro y hacia fuera*. Madrid: VII Congreso de Ciencia Política y de la Administración: Democracia y Buen Gobierno.
- Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuak – CGLU. (2009). *Aid Effectiveness and Local Government. Understanding the links between governance and development*. Bartzelona: CGLU-UCGL World Secretariat.
- Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuak – CGLU. (2012). *Documento de orientación política: Cooperación al desarrollo y gobiernos locales*. Bartzelona: CGLU-UCGL World Secretariat.
- Hombrado, A. (2008). *Coordinación entre el Gobierno central y las comunidades autónomas: asignatura pendiente de la cooperación española*. Madrid: Observatorio de política exterior española. Fundación Alternativas. Documento de trabajo 20/2008.

- Ver Iborra, J., Martínez, P. & Martínez, I. (2013).” Diagnóstico sobre las políticas de cooperación de los gobiernos autonómicos, en La cooperación descentralizada a debate”. *La eficacia de la ayuda y el post-2015*. Barcelona: CIDOB, Art-PNUD & Milurteko Kanpainia.
- Intermon-Oxfam. (2012). *Las claves de Busán. Los próximos pasos de la Alianza Mundial para una Cooperación al Desarrollo Eficaz*. Oharra.
- INCIDEM. (2012). *Cooperación Descentralizada: Nuevas Oportunidades*. Acta del seminario. Madrid: INCIDEM.
- Marcellesi, F. (2012). *Guía práctica para la transformación ecológica de la cooperación al desarrollo*. Bilbo: Bakeaz.
- Martínez, I. (2008). *La cooperación no gubernamental española en Perú*. Madrid: Instituto Complutense de Estudios Internacional (ICEI).
- Sanahuja, J.A. & Martínez, I. (2009). *La agenda internacional de eficacia de la ayuda y la cooperación descentralizada de España*. Madrid: Fundación Carolina-CeALCI.
- Rico, G., Martínez, I., Martínez, P. (2013). *Una mirada internacional: marcos de relación y financiación entre gobiernos y ONG de desarrollo*. Madrid: EGKEK.
- Rodríguez, N. (2012). *Análisis de la cooperación pública vasca 2008-2010. Una mirada a la cooperación descentralizada*. Gasteiz: Euskadiko GGKE-en Koordinakundea.
- Unceta, K., Gutierrez, J., Labaien, I., Martínez, M.J., Malagón, E., Salbalza, M. Villena, J., Zabala, I. (2011). *La Cooperación al Desarrollo Descentralizada: Una propuesta metodológica*. Bilbo: HEGOA.
- Unceta, K., Amiano, I., Gutiérrez, J., Labaien, I., Martínez, M.J., Malagón, E., Sabalza, M., Villena, U., Zabala, I. (2012). *25 Años de Cooperación al Desarrollo en Euskadi: La Política de Instituciones Públicas y el Sistema Vasco de Cooperación*. Bilbo: HEGOA.